

Oñatiko tren

Oñati bere kokapenagatik ere nahiko berezia izan da beti. Oñatik bi sarrera nagusi ditu herri-gunetik nahiko urrun daudenak: Udanako portua eta San Prudentzio. XIX. mendearen erdialdean oñatiarrek beste herri batera joan nahi bazuten, oinez, autobusez edota diarixua erabiltzen zuten. Diarixua gurdi bat da eta hiru zaldik tiratzen zuten (10 lagun sartzen ziren gurdi horretan). Gurdiak erabiltzeari utzi ziotenean, Oñatitik pasatzen zen autobus horri deituko diote “diarixua”.

Hala ere, Udana igota, Brinkolan tren bazegoen eta hori ere erabiltzen zuten Donostiara-eta joateko. Eta San Prudentzian ere bazegoen geltoki bat Gasteizera joateko. Baina jendeak tren Oñatitik pasatzea nahi zuen, izan ere, errepi-dea oso txarra zen autobusez joateko.



Hainbat gora-beheren ostean, 1920ko urriaren 12an trenbidea ipintzen hasi ziren eta 1923ko irailaren 30an San Prudentziotik Oñatira bitarteko trenbidea ireki zen (Vasco-Navarro trenbidearen zati bat izan zen).

Hasieran lurrinmakina bidez funtzionatzen zuen eta herritarrek “Txokolateria” deitzen zioten. Urte batzuk geroago berriztapenak etorri ziren eta trenbidea argindarrez funtzionatzen hasi zen. Baina halako batean, 1967ko abenduaren 31an trenbidea itxi egin zuten. Inork ez daki zergatik, baina esaten dutenez, ez zuen dirurik ematen. Herritarrek ez dute hori sinisten, tren beti beteta joaten zelako.

ΘΝΑΤΙΚΟ ΤΡΕΝ
GELTOKIA

